

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure betaurrekoak gorra komunikatzeko modu erabat berritzailea dakar. Orain arte, bi teknologia baino ez dira egon eskuragarri entzumen-ahalmena handiagotzeko. Alde batetik, gorria partziala dutenek audifonoak erabili ohi dute entzuten duten ehuneko pixka bat igotzeko, baina argi dago soinuak amplifikatzeak mesede gutxi egiten diola entzuten ez duenari. Bestalde, ebakuntza bat eginez kokleako inplanteak existitzen badira ere, horiek ematen duten entzumena izugarri mugatua da, antzematen diren soinuak oso ezberdinak dira gutxi entzuten ditugunekin alderatuta eta esfortzu aparta egin behar da gizartean inplantearekin egokitzeak. Gainera, azkenengo aukera hori normalean jaioberriei bakarrik ematen zaie, zalapartatsua da eramateko eta estetikoki kaskarra.



Beraz, merkatuan dagoen teknologia eskasegia dela deritzogu. Guk proposatzen dugun proiektua aurrera joanez gero, gorra, ebakuntza baten beharrik gabe, soinuak "irakurtzeko" gauza izango dira. Pandemia egoera honetan, musukoarekin solaskidearen ezpainak irakurtzea ezinezkoa izango den arren, edozein pertsonarekin elkarrizketa bat izan ahalko dute. Zerrenda amaigabea da: whatsapp-eko ahots mezuak, pelikula edota serie bateko off ahotsa, spotify-en aurki ditzakegun podcast-ak eta abar ulertzeko gai izango dira gutxi ekoiztuko ditugun betaurrekoekin.



Azkenik, betaurrekoek audifonoak eta inplanteak baino tankera atsegingarriagoa izango dute. Estilo orotariko produktu-gama izango dugu, estetika kontuan hartu beharra baitago pertsona bakoitzak hoberen gelditzen zaizkion betaurrekoak erosteko.